

Klaudio Harluxet Fundazioak datu-banku entziklopediko multimedia landuko du

Hizkuntz industriari euskara txertatzeko tresna eratu da

Hizkuntza, informatika eta telematika bat eginda hainbat proiektu lantzen ari dira egun. Bide honi erditik heldu nahi dio Klaudio Harluxet Fundazioak, euskararentzat baliabideok eskuratuz.

HIZKUNTZ industriarena belarri ertzean gero eta ozenago entzuten ari garen errealitatea dugu, hizkuntzen munduak teknologiaren besotik helduta daraman bidea ispilatzen duena. Euskarak ere, eremu honetan bide luzea duela egiteko, eta egitea gainera, ezinbestekoa zaiola argudiatuz, sortu da Klaudio Harluxet Fundazioa. «Hizkuntzalaritza, informatika eta telematika, denak batera lotuta, bain-



Ezkerretik eskuinera: Xabier Artola, Informatika Fakultateko irakaslea, Xabier Saizar Fundazioko lehendakaria eta Andoni Sagarna Eusenorreko zuzendaria. (Argazkia: Alberto Elozegi).

bat proiektu eta tresna berri sortzen ari dira. Errealitate bonetan euskara sar dadin nahi dugu eta horretarako azpiegitura bideratzea da gure asmoa. Euskarak ez badu azpiegitura garatzen, atzean geratuko da, eta horri aurre egin nahi diogu,

adierazi digu Xabier Saizarrek, Fundazioko lehendakariak. Bankoa finantz-erakundeko zuzendari orokorra eta UZEIko lehendakaria ere bada Xabier Saizar.

Klaudio Harluxet fundazio pribatua da, pertsona fisikoek osatua eta diru asmo-

rik gabea. Alberto Agirreazaldegi, Joserra Aizpurua, Adolfo Arejita, Xabier Garagorri, Rene Harluxet, Joseba Jaka, Ramuntxo Kanblong, Kepa Mendia, Pablo Munoa, Andoni Sagarna, Xabier Saizar, Jose Mari Sors, Andres Urrutia eta Juanito



Andoni Sagarnak esan digunez, «gai izan behar dugu informazioa metatu, egituratu eta hainbat motako produktuak ateratzeko». (A: Alberto Elosegí).

Celaya dira bazkide fundatzaileak. «Euskal Herri osoko ordezkariak bildu dugu, hainbat euskal kultur mundukoak dira, eta beste

hainbat beste lanetan ari direnak. Ghettoetik atera nahi dugu, eta egitasmo bonetan sektore sozial, ekonomiko eta kulturalak bat

egitea». Oraindik ere jende gehiagoren partehartzeari erreparatuko diotela eta zerranda zabalduko dela aipatu digu Xabier Saizarrek.

Datu-banku multimedia

DATU bankuan, Euskal Herriko eta kultura unibertsalari buruzko informazioa jasoko dute, testuak direla, irudiak, musika, bideoak, ahotsak... eta hau guztia bideratzeko ikertzea eta azpiegitura egokia moldatzea da estreinako eginkizuna. Fundazioak Euseñor nahiz EHUKo Informatika Fakultatearekin lankidetzan burutuko ditu lanok, eta konkretuki, formato elektronikoko obren ediziorako eta datu-banku baten osaketarako teknologiaren garapenerako bi urterako programa lotu du Informatika Fakultatearekin, zeina EAEKO Industria Sailari aurkeztu ondoren, laguntzea deliberratu duten.

Xabier Saizarrek dioenez, «produktu kultural konbentzionaletatik ateratzeko bi-

Klaudio Harluxetek zabaldu zituen ateak

KLAUDIO Harluxet Fundazioa ez da hutsetik hasiko lanean, hainbat jende eta taldek urteotan emandako urratsak izango baititu helduleku. Adibiderik garbiena Klaudio Harluxetena dugu. Nafarroa Beherekoak, bizi zen artean, saio handirik egin zuen informatika euskal kulturaren mesedetan jorratzen. Atzera egin, eta honela gogoratu digute bere ekarpena Fundazioko kideek: «1980an, saltsa bonetan gabiltzanon artean, Elbuyar, UZEI, eta beste, batzarra egin ge-



nuen, gure buruak informatizatu beharraz ohar-tuta. Harluxet ere hantzen, eta teknologia berriak gureganatzeko orduan hainbat zailtasun eta ezintasun ikusten ba-

genituen ere, bera izan zen aurrera egitera bultzatu gintuena».

Bordeleko unibertsitatean kalkulu zentroko buruzen garai hartan, eta adierazi digutenez, «bide ez konbentzional batetik abiatuta zertara egokitu behar genuen asmatu zuen. Etengabe gure artean izan zen, abolkulari gisa, pistak emanez. Eta aipatu zizkigun denak primeran atera dira, zuzen. Beti bere jakinduria bonetara bideratu zuen eta asko dugu guztiok eskertzeko».

Informazioaren autobidean barrena

EHUko Donostiako Informatika Fakultatearen gain egongo da Fundazioaren datu-bankua garatzeko laguntza teknikoa bidertzearena. Duela hamar urte hasi zen bosteko talde bat lengoia naturalaren prozesamenduan lanean, eta dagoeneko hamasei dira, informatikari eta hizkuntzalarien artean, horretan ari direnak. Oinarriak finkatzea izan zen lehen urratsa, zimendarriak jartzea, eta karia honetara hitzak deskonposatzen dituen analizatzaile morfologikoa osatu zuten. Horren azpi-proiektu moduan etorri da berriki aurkeztu ondoren salgai jarri den Xuxen zuzentzaile ortografikoa.

Honekin batera, datu-base lexikal handia garatu dute, Xabier Artola taldeko partaideak esandakoaren arabera: «*Datu-base honék bitzei buruzko informazioa dakar eta horrelako tratamenduak egiteko beharrezkoa zaigun informazio guztia*». Orain hainbat produktu mamitu nahian dabilza, lematizatzaile orokorra kasu, hemendik urtebetera kalera tuko dena eta edozein hitz emanda lema edota erroa zein den esateko gai izango dena. Sintaxiaren alorrean zuzenketa inteligenteagoa egiteko modua ere ikertzen ari dira.

Irakaskuntzari begira bestalde, tutore intelligen-

teen munduari erreparatu diote, eta hiztegi gintzari dagokionez, kontsultak beste era batean egiteko aukerak arakutzen dihardute. «*Ikus daitekeenenez, mundu oso zabala da hizkuntz industriak harrapatzen duena. Guk basieratik argi izan dugu pausoz pauso osatu behar zela bidea eta horrela soilik lor genezakeela euskarak dituen erronka handietara modu egokian iristea*».

Informatika Fakultate berean multimedia eta telematikaren alorretan ere ari dira lanean. Adarrotako taldeek esku hartuko dute zuzen-zuzen Fundazioaren proiektu nagusian, datu-banku informatizatu multimedialan, eta bakoitzak berean urteotan egindako ekarpenak aski baliagarriak gerta daitezke aurrera begira hizkuntz industriarekin etorriko diren erronkei aurre egiteko.



dea egitera jo dugu. Egun, posible da ordenadorearen pantailan milaka kilometrorra dagoen informazioa eskuratu eta multimediaz jorratzea. Horretara goaz, gai izan behar dugu informazioa metatu, egituratu eta hainbat motako produktuek argitaratzeko, liburu moduan, CD-ROM formatoan, kontsulta telematikoen bidez baliaitu daitezkeenak, eta abar».

Lanerako ereduak eta egiturak

HIZKUNTZ industriaren garapenerako estrategia oso bat lantzen ari da beraz, Fundazioa, «*gure bizi-dendora baino luzeagoa izango den proiektuari begira*», Andoni Sagarna Eusenorreko zuzendariak argituta-koaren arabera. Lanak burutzeko jarraituko duten

eredua ere argi dute: «*Sortzen zaizkigun beharren arabera hainbat erakunderi enkarguak luzatuko dizkiegu. Bi adar luzatu ditugu orain -Eusenor eta Informatika Fakultatearekin lankidetzan—, baina gehiago ere sor daitezke*». Kataluniako adibidea aipatu digu jarraian, Enciclopedia Catalana Fundazioarena: «*Bere lanen exekutatzailer gisa enpresa multzoa baliatzen du, batzuek %100 fundazioarenak dira, eta besteak %50 edo %10, helburu estrategikoen arabera*. Eredu polita da eta gure jardunerako baliagarria gerta daitezke».

Datu-bankua Klaudio Harluxet Fundazioarekin elkarlanean burutuko badu ere, Eusenor Elkarte Anonimoak (Ikastolen Federazioa, Elhuyar, UZEI eta Elkar ar-

gitaletxea daude barruan) izaera eta proiektu propioak izango dituela azpimarratu digu Andoni Sagarnak: «*Ezin dugu nondik gatozen eta non gauden abaztu. Edizio elektronikoa butsaren bu-*

Xabier Artolak eta unibertsitateko taldeak hamar urte eman ditu alor honetan lanean. (Argazkia: Alberto Elosegil).

«Euskarak
hizkuntz
industria
garatzeko
azpiegitura
osatu behar du;
erronka honi
orain eta gaur
heltzen ez badio
erabat atzean
geratuko da».
(Argazkia:
Alberto
Elosegi).



rengo merkatua du, eta berdin sare telematikoak. Guztia prestatzen hasi behar dugu, baina egun kultur tresna gisa liburuak erabiltzen dira eta atera egin behar ditugu». Hain zuzen ere, entziklopedigintzan jardungo du Eusenorrek, eta berehalakoan kaleratuko du Entziklopedia Orokorren lehen liburua. Jasotzen duten informazio guztiarekin datubankuari jateko emango zaio.

Garapen teknologikoari dagokionez, Informatika

Fakultateak azken hamar urteotan egin dituen lanak oinarri inportantea izango dira Fundazioarentzat, Xabier Artola bertako irakasle eta proiektuko partaideak esan digunez: «Euskararen

«**Ghettotik atera eta sektore sozial, ekonomiko eta kulturalak bilduko ditugu egitasmoan»**
XABIER SAIZAR

tratamendu naturalerako taldean hamasei kide gabiltza, informatikari eta hizkuntzalarien artean. Gure esku egongo da bankua osatzeko babes tekniko». Honez gain, Fundazioak fakultate bereko multimedia taldearekin eta telematika sailarekin lotuko du teknologia mailako ekinbidea.

Baliabide hauek guztiak euskara hizkuntz industriaren sare handian txertatzeko erabiliko ditu Fundazioak, beraz: «Alor honetan txinatarrek eta guk helburu estra-

tegiko berak ditugu eta buru-belarri sartzea hil edo bizikoa zaigu, ezin baitugu munduaren interpretazioa egiteko bezala gure burua kanpoan azaltzeko tresna kulturalik gabe egon», Xabier Saizarrek esan digunez. «Helburu bonetarako ekimen pribatuaren eta konpromezu personalaren beharra berreskuratzea ezinbestekoa zaigu eta bonetan ere eredu sendo bat jarri nahi dugu».

J.J. PETRIKORENA

JUAN LUIS ZABALAREN ipuin liburua, SUSA argitaleixek plazaratu berria

SAKONETA

11 ipuineko bilduma, 176 orrunez, liburu indendetan salgai, 1.300 pezeta.